

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Navaridasko urmaeleko habitaten eta biodibertsitatearen kontserbaziorako neurriak

Espediente-zenbakia: AO-A-2019-0192

Eskatzailea: Navaridasko Udala

Obretako jardunetan faunarentzako babesguneak berregingo dira, ertzetan eta eremu periferikoetan inguruko urmaelen sare bat sortu, eta urmaelaren iparraldeko perimetroa landareztatu.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 10a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua

JAVIER AGIRRE ORCAJO